

30 urte arteko gazteen enplegarritasunaren sustapena:

| | | |
|---|---|---|
| Helburua | 30 urte arteko gazteen enplegarritasunaren sustapena. | |
| Onuradunak | <p>Ondoren azaltzen diren baldintzak betetzen dituzten Bizkaiko enpresak (zernahi izaera juridiko dutela, enpresaburu indibidualak eta profesionalak, ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak, bai eta irabazteko asmorik gabeko elkarteak, fundazioak eta beste erakunde batzuk ere):</p> <ol style="list-style-type: none"> 1.- Bizkaian izatea sozietatearen egoitza eta zerga-egoitza, eta lantokia BLHn. 2.- 250 langile baino gutxiago edukitzea. 3.-Aurreko betekizun horiek betetzen ez dituzten enpresek ez izatea % 25 baino gehiagoko partaidetza erakunde onuraduneari, zuzenean edo zeharka. 4.- Enpresaburu indibidualak eta profesionalak, Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea ohiko bizilekua dutela egiaztatzea. 5.- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneari izatea. <p>Betekizunotatik salbuetsita daude: Administrazioaren edozein esparruri (toki administrazioa, foru administrazioa, autonomia erkidegoa edo zentrala) lotuta dauden edo haren mendeko diren erakunde autonomoak, sozietate publikoak, eta irabazteko asmorik gabeko elkarteak, bai eta lanbide heziketako zentro publikoak eta pribatuak eta aldi baterako laneko enpresak ere.</p> | |
| Diruz lagundu daitezkeen egitateak | <p>Gutxienez 12 hilabeteko iraupena duten kontratuak, hauexek barruan daudelarik: kontratu mugagabea, iraupen mugatuko kontratua eta Foru Dekretu honek ezarritako orientazio-, talde-prestakuntza eta bitartekaritza-ibilbidea amaitu duten gazte enplegugabeen trebakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratua.</p> <p>Hauexek daude baztertuta: hamabi hilabetekoak ez diren kontratuak eta praktikaldietakoak.</p> <p><u>2016/09/16tik 2017/09/15era bitartean formalizatutako kontratuak.</u></p> | |
| Diruz lagundu daitezkeen gastuak | Iraupen mugatuko kontratuaren kasuan urteko lansari gordinaren % 25 edo iraupen mugagabeko kontratuaren kasuan % 30. | |
| Kontratuen betekizunak | <ol style="list-style-type: none"> 1.- Kontratuak hala jardunaldi osoak nola partzialekoak izan beharko dira baldin eta jardunaldia kontratuaren hasiera-datatik eta indarren dagoen bitartean gutxienez ohiko jardunaldiaren % 50 bada. 2.- Diruz lagundutako kontratuak 30 urte arteko gazteei egingo zaizkie, kontratuaren hasiera-data barnean dagoelarik. 3.- Kontratazioak enpresak kontratatzen duen gaztearen prestakuntza akademikoari dagozkion lanpostuetara egokitu beharko dira. 4.- Enpresak kontratatzen dituen gazteek kontratua sinatu baino hilabete bat lehenago enplegurik gabe egon direla egiaztatu behar dute. 6.- Eskabidea aurkeztu aurretik beharrezkoa da enpresak kontratatzen duen gazteari Gizarte Segurantzari dagokion erregimenean kontratua formalizatzea eta alta egin izana. | |
| Laguntzen zenbatekoak | <p>Erakunde eskatzaile bakoitzeko muga: 70.000 € guztira; gehienez, 10 kontratu.</p> <p>Gehienez ere 7.000 € eman daitezke.</p> <p>Diru-laguntzaren zenbatekoa jakiteko aplikatu beharreko portzentajea kontratu motaren arabera izango da :</p> <ul style="list-style-type: none"> — 12 hilabeteko iraupen mugatueterako, % 25 aplikatuko da. — Kontratu mugagabeetarako, % 35 aplikatuko da. — Kontratuak Dekretu honetan ezarritako orientazio-, talde-prestakuntza eta bitartekaritza-ibilbidea amaitu duten gazte enplegugabeen trebakuntzarako eta ikaskuntzarako badira, % 35 aplikatuko da. <p>Nolanahi ere, beti kontratazioaren lehen hilabetearen nominari dagokion edukia aintzat hartuta ebatziko da bai ordainsariari bai jardunaldiari dagokienez. Diru-laguntzaren zenbatekoak ateratzeko ez da etorkizunari begirako aldaketarik kontuan hartuko.</p> | |
| Epeak | <p>Eskabideak aurkeztea : 2017/05/2tik 2017/09/15era.</p> <p>Eskabideak eta gainerako dokumentazioa Ekonomia sustatzeko sailaren bulego birtualaren bidez aurkeztu behar dira (www.bizkaia.net/sustapena-Bulegobirtuala). Horretarako, enpresak izenpe elektronikoa eduki behar du edo, bestela, Bizkaibai zerbitzuan izena emanda egon behar du; azken kasu horretarako, edozein ogasun bulegotan eska daitezke txartela.</p> | |
| Informazio gehiagorako | <p>BIZKAIKO FORU ALDUNDIA Enplegua eta ekonomia, sustatzeko saila Ercilla 6, 48009 Bilbao</p> <p>94 406 80 08 www.bizkaia.net</p> | <p>MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOA Portugaleteko Udala Merkataritza Saila Gizarte-etxea, 4.solairua. 48920 Portugalete</p> <p>94 472 93 53 comercio@portugalete.org Jendaurreko ordutegia: 8:30etik 14:30era</p> |